

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza^{info}

Asteazkena, 2012ko abenduaren 5a. IX. urtea. 2.445. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Joxe Ramon Larrea Bikoizlea

«Marrazki bizidunetakoak baino zailagoa da pertsonaia errealak bikoiztea»

Ikaztegiatarak 30 urte daramatza euskarazko bikoizketan; lehen egiten zuten lanaren laurdena baino ez dutela gaur egun dio ◻4



Joxe Ramon Larrea bikoizlea. E.MAIZ



ITZEA URKICU

→ **Espainiako bandera jartzearen aurka.** Hainbat herritarrek Espainiako Gobernuari «espainiar izatea inposatzen» ari dela salatu dute, eta mobilizazio-etara deitu dituzte herritarrak; Bildu-Aralar eta EAJ ikurrinaren alde agertu dira, eta Espainiako bandera jartzeko agindua «inposaketatzat» hartu dute. ◻3

Asteasuko XIV. Nazioarteko Ziklo Krosa jokatuko da bihar, Elizmendi auzoko zirkuituan

Aitzondo Txirrindulari Elkarteak euskal txirrindularien aldeko apustua egin du; Aitor Hernandezen eta Egoitz Murgoitoren arteko lehia aurreikusten da, elite mailan ◻2

Fraisoroko Matia Fundazioko langileak «harro», 'Bikain' ziurtagiriarekin ◻6

Berrobiko frontenis txapelketaren egun handia etzi izango da ◻7

Egin HITZAren harpidedun...

...abenduaren 31 baino lehen eta jaso Mahala baserriko produktuez osatutako saski ederra...



...opari



eta...

... HITZAren harpidedunen artean PORTUGALEN egiteko bi pertsonentzako zirkuitua zozkatuko dugu

harremanetarako: 902 82 02 01 / harpidedun@hitza.info

hitza^{info}

Irudia ▶ **Altzo**



KANPAIAK ISILDU GABE

Altzo Santa Barbara eguna izan zen, eta Altzon ongi mantentzen dituzte ohitura zaharrak. Santa Barbarak ahal handiak omen ditu, eta usadioari jarraituz, ekaitzak uxatzeko kanpaia jo zuten altzotarrak. Haurrak hizketan hasteko ere balio omen du. Banan bana, herriarrek urteak adina aldiz astindu zituzten kanpakiak. Meza izan zen, eta ostean, udal ordezkariak 2013ko egutegia eta txokolatea banatu zizkieten herritarrei. **E. AMAIZ**

→ **Laburrak**

Poker txapelketa, gaur, Alegiako Gaztetxean

ALEGIA ▶ Alegiako Gaztetxearen 25. urteurrena ospatzeko egitarauaren barruan, gaur, 22:30ean, poker txapelketa egingo dute.

1962 urtean jaiotakoek bazkaria egingo dute

TOLOSA ▶ 1962 urtean jaiotakoek euren 50. urteurrena bazkari batekin ospatuko dute abenduaren 15ean. Izena emateko tolosa1962@gmail.com helbidera idatzi behar da, eta gaur da horretarako azken eguna.

Argazkilaritza ikastaroa otsailetik ekainera

LEITZA ▶ Argazkilaritza ikastaroa antolatu dute Leitza. Otsailetik ekainera bitartean egingo dute, eta tartean lau irteera egingo dituzte. 280 euro ordaindu behar dira eta izena emateko 679 126 188 zenbakira deitu behar da.

Txuletaren Festarako txartelak, salgai

TOLOSA ▶ Bihartik igandera arte Txuletaren Festa egingo da. Zerkausiko eta Euskal Herria plazako otorduetarako txartelak Tolosaldea Tourren eskatu behar dira, 943 69 74 13 zenbakira deituz edo tour@tolosaldea.net helbidera idatziz.



Antolatzaileek eguraldi ona espero dute biharko, hala eta guztiz ere, lokatzik ez da faltako zirkuituan. **A. AMAIZ**

Aitor Hernandez eta Egoitz Murgoitioren arteko lehia, Asteasuko Ziklo Krosean

09:30ean hasiko dira lasterketak; eliteen mailakoa 12:30ean hasiko da, Elizmendi auzoko ibilbidean

Asier Imaz

Asteasuko XIV. Nazioarteko Ziklo Kros lasterketa jokatu da abenduaren 6an, bihar, Elizmendi auzoko ibilbidean. 09:30ean hasiko dira lehiak, eta onenen txanda, 12:30ean iritsiko da. Elite mailako euskal txirrindulari hoberenak bertatik bertara ikusteko aukera, Aitzondo Txirrindulari Elkarteari eskertu behar zaio, eta bihar lanean ibiliko diren 50 boluntariari.

Krisiaren eraginez, iaz sustrietara itzultzea erabaki zuten Aitzondo Txirrindulari elkarteak. Euskal ziklo krosa bultzatzeko helburu tinkoarekin jarraitzen dute aurten ere. Hala eta guztiz ere, ez dute nolanhako lorpe-

na erdietsi: nazioarteko maila izatea Asteasuko Ziklo Kros lasterketak. Joxe Ramon Aiertza antolatzaile lanetan ibili da azken urteetan bezala. Bere esanetan, nazioarteko izaera horri esker, euskal txirrindulariek Asteasun mundu mailakoek lortuko ez dituzten puntuak eskuratuko dituzte.

Izen propioez hitz egiterakoan, Aiertzak iazko irabazlea, Egoitz Murgoitio, eta aurten izugarrizko denboraldia egiten ari den Aitor Hernandez aipatu ditu. «Jaz lehen eta bigarren postuan sailkatu ziren biak Asteasun; aurten, berriro ere, bien arteko lehia ikustea espero dugu».

Ibilbidea ohikoa izango da. Elizmendi auzoko landetan osatuko dute zirkuituko zatirik handiena. Azken egunetako eguraldia ikusita, lokatzik ez dela faltako esan dute antolatzaileek. Hala eta guztiz ere, zirkuitu bizia dela azpimarratzen dute. Ikusgarritasuna bermatuko duten bi osagai dira horiek, hau da, lokatza eta abia-

dura. 150-200 txirrindulari inguru etorriko dira Asteasura, maila guztiak kontuan hartuz gero. Ibilbideko puntu jakinetatik, zirkuitua ia bere osotasunean ikus daiteke, eta horrek, txirrindularien lanaz gozatzeko aukera areagotzen du.

Sarrerari dagokionez, edonoren poltsikora egokitzeko moduko jarri dute Aitzondo Txirrindulari Elkarteak: 3 euro. Hori nahikoa ez, eta sarrera erosten duenak saski eder baten zozketan parte hartuko du.

Antolatzaileen esfortzu handi horri erantzutea falta da orain, eta hori, eskualdeko txirrindularien esku gelditzen da. Zita egina dago.

↓ **Ezaugarriak**

ABENDUAK 6, OSTEGUNA

- **Ibilbidea:** 2.610 metroko zirkuitua. Errepidean, 423 metro; bidean, 187 metro eta zelaian, 2 kilometro.
- **Ordutegia:** 09:30ean, kadeak; 10:30ean, masterrak; 11:30ean, juniorrak eta 12:30ean, 23 urte azpikoak eta elite mailakoak.
- **Sarrera:** Hiru euro. Sarrera erosten duten guztien artean, saski bat zozketatuko da.
- **Izen ematea:** 08:00etatik aurrera, egunean bertan, Asteasuko Pello Errota ikastetxean.
- **Azken urteetako irabazleak:** Egoitz Murguitio (2011); Sven Nys (2010, 2007,); Sven Vant-hourenhout (2009); Bart Wellens (2008).

↓ **Iragarki laburrak**

SALGAI EDO ALOKAIRUAN

Etxebizitza. Etxebizitza bat alokatzen da Tolosako Alde Zaharrean. Sukalde, egongela, 3 logela, bainugela eta terrazarekin. Interesatuek deitu 618 77 29 98 telefono zenbakira.

Ile apaindegia. Villabonan, ile apaindegia saldu edo alokatu nahi da. Interesatuek 630 099 092 telefono zenbakira deitu behar dute.

Autoa. Citroen Berlingo XTR saltzen da, 2008. urtekoa. Aukera ezin hobea. Interesatuek deitu: 635 203 056.

LAN BILA

Etxeko lanak. Etxeko lanetarako: etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943 696882 / 606 521992

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Espainiako bandera jarriz «espainiar izatea inposatzen» ari direla salatu dute

Bai Euskal Herriari ekimenak antolatutako mendi martxan parte hartzeko deia luzatu dute hainbat herritarrek

Itzea Urkizu Tolosa

«Espainiar izatea inposatu nahi digute, baina ez gaituzte, ez konbentzitu, ezta garaituko ere». Horrela salatu dute hainbat herritarrek, *Imposaketari ez! Espainolari ez! Geurea ikurrina!* lelopean, Tolosako epaitegiaren aurrean egindako agerraldian.

Tolosako udaletxean Espainiako bandera jartzeko aginduak, oinarria «konstituzioak ematen dien lege babesean» duela nabarmendu du Tolosako epaitegiaren aurrealdean agerraldia egin duen herritar taldeak: «Ikurrina espainiar agintearen menpeko ikurra dela agertu nahi digute».

Horrela beraz, legea izan dute hizpide, eta gogor gaitzetsi dituzte, lege hori ez betetzeak ekar ditzakeen ondorioak: «Legez ezarri nahi dute Espainiako bandera, borondatez onartzen ez dugula».

ko. Horrela egin ezean, ordainketa altuekin eta gaitasungabetzeekin mehatxatu gaituzte».

Agerraldia bertaratutako enstuz, «Espainiako Gobernuak Euskal Herriaren aurka abian duen asimilazio estratejiaren zati» da Tolosako Udalean bandera espainiarra jartzearena: «Beraien ikurrak inposatzen dizkigute, gureak direla sinets dezagun».

Gainera, Espainiako bandera jartzeko aginduaz haratago, nortasunean ere eragin nahi dutela uste dute: «Espainiako bandera

Ibarrako Izaskun auzotik abiatuko da, bihar, 09:30ean, Uzturrerako martxa

Abenduaren 19an Espainiako banderaren inguruko herri batzarra izango da Tolosan

ez dugu gure sentitzen, eta argi eta garbi adierazi nahi dugu inposizioetatik hartzeko dugula jarrera hau, gure izate eta nortasuna ezabatzea baitute helburu».



Ikurrinaren aldeko aldarrikapenak Tolosako epaitegi aurrean egin zituzten. I. URKIZU

Bide horretan, eta «estatuaren biolentzian oinarrituriko jarrera inposatzaile baten aurrean» daudela salatuz, aldarrikapenei bidea ireki diete: «Ikur hori arrotza da guretzat, ez dugu maite, eta ozen esaten dugu ez dugula nahi. Gurea ikurrina da, eta gure nazioak Euskal Herria du izena».

Honenbestez, auzi honen inguruan antolatzen diren jarduerak, egitasmo eta mobilizazioetan parte hartzeko deia egin diete herritarrei, «argi ikus dezaten, geurea ikurrina dela». Datorren abenduaren 19an, 19:30ean izango da, hain zuzen, Tolosako udaletxeko pleno aretoan, Espainiako bande-

raren auziaren inguruko herri batzarra.

Uzturrera mendi martxa, bihar Bide beretik, epaitegiaren aurrean egindako agerraldian, Bai Euskal Herriari ekimenak antolatutako mendi martxara joateko deia ere egin dute. Bihar izango da, *Abenduaren 6an inposaketari ez! Geurea ikurrina!* lelopean, eta 09:30ean irtengo dira Ibarrako Izaskun auzotik, Uzturrera joateko.

«Espainiako Konstituzioaren egunean, lanera zein eskoletara joateko deialdia luzatu nahi diogu herritar orori, ospatzeko ezer

ez dugun egun honetan, normaltasunez joka dezagun», diote. Era berean, ordea, «abenduaren 6an lanera edo eskolara joateko aukerarik ez duenarentzat», Uzturrerako mendi martxa proposatu dute, aldarrikapen ekitaldia nabarmenduz: «Jar dezagun gure bandera Tolosako gailurra, espainiar legearen esku inposatzailea iristen ez den lekuan».

Aipatzekoa da, eskualdeko hainbat alkatek eta hautetsik bat egin dutela mendi martxa honekin, besteak beste, Ibarra, Oresa, Berrobi, Bidegoian, Aduna, Amasa-Villabona, Ikaztegieta nahiz Asteasuako udal ordezkariak.

Bildu-Aralar eta EAJ ikurrinaren alde agertu dira

Tolosako Udalak bide judizialari ekingo dio datozen egunotan, Espainiako banderaren auziari begira

I. Urkizu Tolosa

Tolosako Udaleko Bildu-Aralar udal taldea eta EAJko udal ordezkariak bat etorri dira, eta Espainiako bandera jartzeko agindua inposaketatzat hartu dute guztiek.

Tolosako Udalak ere jaso du, Espainiako bandera udaletxeko lehenasunezko toki batean jartzeko agindua, eta hori dela eta, Bildu eta Aralarrek osatutako udal taldeak agerraldia egin zuen pasa den ostiralean, berria herritarrei helarazteko helburuz.

Bildu-Aralarren ustez «inposizioa» da Tolosako udaletxean Espainiako bandera jartzearena: «Tolosako herritarrek bere sentitzen duten bandera ikurrina da,

eta udalak herritarren nahiak eta sentimenduak ordezkatzan ditu». Hori dela eta, udalak bide judizialari ekingo dio laster, bandera espainiarra jartzeko jasotako eskaera horri erantzuteko.

Bide beretik, Bilduk eta Aralarrek «era bateratuan» erantzun nahi diote auziari, eta horregatik, «herri moduan ahalik eta erantzun zabalena emateko gainerako alderdiekin hitz egiten» ari direla nabarmendu zuten agerraldian.

«Era bateratuan» erantzun nahi diote auziari, Bilduk eta Aralarrek

dian, Hasier De los Rios, Lore Agirre, Ibai Iriarte, Inaki Irazabalbeitia eta Mire Urkola udal ordezkariak: «Ikurrina beren nazio bandera bakarra dela sentitzen duten udaleko gainerako alderdiekin, inposizioaren aurrean erantzun bateratu eta sendo bat prestatzeko lanean ari gara. Etor-

kizuna eraikitzeko unea da, inoren inposizioirik gabe».

Horrenbestez, Bildu-Aralar udal taldeak, herritarrek «uneoro» informatuko dituztela nabarmendu dute, ikurrinaren aldeko hautua egiteko deia eginez.

«Demokraziatik urrun»

EAJko udal taldeak, bere aldetik, mozioa aurkeztuko du datorren osoko bilkuran, Espainiako banderaz aritzeko.

Besteak beste, «gizartearen bo-

rondate askearekiko konpromisoa betez», erabakitzeke ahalmenaren aitorza nabarmendu dute jeltzaleek: «Ezin zaio uko egin Euskal Herriaren izatea aitorzeari, Euskal Herria borondate kolektiboa duen subjektua delako, kultura, ekonomia eta politikari dagokionez».

Bide honetan, eta «aniztasuna bitarteko erretoriko bat soilik ez» dela azpimarratuz, bandera espainiarra ezartzearena «demokraziaren uste sendoetatik oso

urrun» dagoela azaldu du EAJko udal taldeak.

Horrela, beraz, proposamena luzatuko dute hurrengo osoko bilkuran, «epaia nahitaz bete beharrenean aurrean»: udaletxeko arkupean plaka bat jartzea proposatu dute, beren ustez «bandera espainiarra zigor mehatxupean ezarritako sinboloa baita, eta tolosar gehienek nahiaren aurka eta beren ordezkarien erabakimenean kontra jarria baitago».



De los Rios, Agirre, Iriarte, Irazabalbeitia eta Urkola, pasa den ostiraleko agerraldian. I. URKIZU

Joxe Ramon Larrea >

Bikoizlea

Hogeita hamar urte daramatza Joxe Ramon Larrea ikaztegi-tarrak telebistako eta filmeetako pertsonaiei euskal ahotsa jartzen.

«Pertsonaiari sinesgarritasuna ematea da zailena»

Enertiz Maiz ikaztegieta

Joxe Ramon Larrea (Ikaztegieta, 1955) izenez inor gutxi ezagutu du ikaztegi-tarra, baina bere ahotsa ezaguna izango da askorentzat. Euskal Telebistako hainbat film, telesail edota marrazki bizidunetako pertsonaiei ahotsa jartzen aritzen da. Marrazkietako Lazkao Txikik edota Michelangelo ninjak bere ahotsa dute. Mixer eta Rec enpresekin egiten du lan eta Kandido Uranga, Ane Aseginolaza edota Inaki Beraetxe aktoreak ditu lankide. Lan eskasia dela eta, aktore lan txikiak ere eginak ditu.

Nolatan hasi zinen bikoizketa lanetan?

Hogeita hamar urte badira hasi nintzela. Lazkaon euskarako D titulua, hau da, gaurko EGaren baliokidea atera nuen. Bikotea Donostian zegoen lanean, eta euskarako klaseak ematea pentsatuz joan nintzen. Iragarki bat ikusi eta lagun batek komentatu zidan ikastaro batzuk zeudela, eta bikoizketa ikastaroekin hasi eta aukeratu izan nintzen. Bikoizketa enpresa sortu zen, eta hamabi bat urtez egon nintzen enpresako langileen zerrendan.

Mundu berri batean sartu zinen.

Elektrikari lanak utzi nituen. Hasierako urteetan ikastaroak jaso genituen. Gehienbat katalanetik izan zen. Haiek aurreratua zuten, eta hiru lagun etorri ziren guri erakustera.

Zein da zehazki bikoizle baten lana?

Guk testua atrelean izaten dugu. Itzulua, eta ahora eta erritmoa egokitua egoten da. Itzultzailean eta egokitzailearen lana izaten da hori. Guk hasterako, ordea, lehenik eta behin bi edo hiru aldiz bertsio ofiziala ikusten dugu. Entzun, eta ia gutxi gorabehera buruan geratzen zaizu erritmoa. Erritmoari jarraituz atera egiten zaizu, eta sartu egiten da.

Kaskoak jarri eta lanera.

Ni ez naiz kaskoak jarri zalea, baina beste batzuek nahiago izaten dute. Gazte gehienek, esaterako, beti erabiltzen dituzte.

Bakarrik edota pertsona gehiagorekin egin daiteke ezta?

Pistaz pista egiten da lana batzuetan, hau da, zu bakarrik zaude mikrofonoaren aurrean. Bakarrik ari bazara ahotsa ñabardura gehiagorekin hartzen da. Aldiz, lau pertsona baldin bagaude mikrofonoaren aurrean distantzia harrapatu ezin ibiltzen zara, zailtasun gehiago daude. Zinerako denean batik bat, pistan egiten dugu lana. Gero nahasketak egin ahal izateko.

Hogeita hamar urte hauetan lan egiteko modua ere asko aldatuko zitezaten.

Izugarri aurreratu da teknologia berriekin, eta oso ezberdina da lan egiteko modua. Digitalizazioarekin gainera, zuk esaldia berandu sartu baduzu ere, mugitu egiten dizute. Edota nahiz eta bere tokian hasi luzeegi egin ba-

duzu, konprimitu egiten dute irudiarekin behar bezala lotuz.

Azkarrago bukatuko dituzue lanak.

Bai. Esaterako, zinemarako filma denean, pertsonaien kopuruak baldintzatu arren, bikoizketa aldetik astebeteko lana izaten da. Teknikoen lana bestelakoa da.

Euskal Telebistarako egin izan duzue beti lana?

Bai. Hasieran, *Dallas*, *Monopoli*,... telesail amerikarrak ziren. Gerora marrazki japoniarrak iritsi ziren. Merkealdietako kontua izango dela pentsatzen dut. ETBk erosten du materiala, eta bikoizketako enpresei banatzen die.

Zer da zailena?

Pertsonaiari sinesgarritasuna ematea da zailena. Askotan bikoiztutakoa ikusten duzu, eta marrazkia eta ahotsa ez doaz ondo. Nahiz eta zailagoa izan pertsona errealak bikoiztea, egokiago ikusten duzu edo moldatuago dagoela ahotsa pertsonaiarengana. Marrazkiena ez da oso erraza.

Marrazkien kasuan ahotsa aldatu egin beharko duzue.

Bai aldatu egin behar izaten dugu, baina hala ere, bakoitzak bere erregistroak ditu, eta hortik asko aldatzerik ez dago. Filma, marrazki bizidunak edota telesail bat denean, zuzendariaren lana izaten da pertsonai bakoitza nori dagokion zehaztea. Bikoizle on erregistroak ezagutzen dituzte.

Arrakasta handia izan zuten Lazkao Txikiren marrazkiek.

Lazkao Txikirena ez zen lan erraza.

Erreferentziarik gabeko lana izan zen. Beste hainbat lanean, ingeles edo frantses bertsioen erreferentziak dituzu erritmo eta tonuak markatuz. Lazkao Txikiren kasuan, marrazki soila zenuen aurrean eta zuk moldatu behar zenuen ahotsa bertara. Pixka bat ezagutzen nuen ez horrela

«Lazkao Txikirena ez zen erraza izan, erreferentziarik gabeko lana izan baitzen»

hartu nuen, eta gero etxean etalenerako bidean jartzen nituen bere bertsioak. Hala ere bere ahotsa inguratu ere ez zara egiten, agian jarrerara gehiago.

Kalean ahotsarengatik jendeak ezagutzen zaitu?

Bai, jendeak galdetzen dit: «nik zu... zure ahotsa ezaguna egiten zaib». Eta: «Ez dakit ba, zuk jakin-gu duzu», esaten diet, ea beraiek asmatzen ote duten edo. Eta bestela ETBn marrazkiren batzuetan esandakoan segitua konturaten dira. Jende gaztea izaten da askotan, marrazkietan hainbeste aldiz entzun dutelako.

Zeini jarri diezu ahotsa?

Aktore askok pertsona jakina dute, eta ni Al Pacino bikoizten hasi nintzen. Ia orain artean jende gazteari jarri diot ahotsa. Hala ere, nik gehiago marrazkietan egin dut. Urte guzti hauetan pila bat izan dira: Ninja dordoketako

Michelangelo, Xagu ausarta edota bigarren mailako pertsonaia pila bat. Dokumentaletan lan motxak egin ditut, egun oso gutxi bikoizten ditugu.

Beharrezkoa da ahotsa zaintzea?

Nik ez dut arazorik izaten, baina beti zaindu behar izaten da. Gaue-ro gargarak egin behar izaten dira. Goizean, lanera joan aurretik, ahotsa berotu egin behar izaten denez, kantuan edo hitz eginez joaten naiz autoan. Lehen ordua izaten da txarrena.

Krisiak zuei ere eragin dizue.

Bai. Lehen urteetan dena egiteko zegoen, eta lan pila bat izan genuen. Hamar urtetan izugarrizko artxiboa egin genuen, eta berriz emititu ahal dituzte. Eta hogeita hamar urteren ondoren zer esanik ez. Gaur egun, lehen urteetan egiten genuenaren %25a baino ez dugu egiten. Lan taldea asko murriztu da, eta finko izateari utzi genion. Orain, lau aktore baino ez daude lan postu finkoarekin, eta hogeita hamar aritzen gara guztira Donostian.

Nola ikusten duzu aurrera begirako egoera?

Datorren gobernuak ETB1 indartzeko egiten duen apustuaren arabera izango da. Umeentzako bikoizten da baita zinemarako denean ere, baina ordutegi batzuk hutsik daudela ikusten dugu, nerabeentzako ez da ezer egiten eta filmak ere gutxi. Eta zinemarako ere urtean sei-zortzi film egiten dira, oso gutxi da.



E.MAIZ

Abenduaren 1etik 15era

**Makillajea %10
Kosmetikoak %20**

SHUYANA

EBERGINTZA

Aprobetxatu gure deskontuak!

*Metatu gabeko beharpenak

Lehengoko Ikaztegieta ezagutzeko aukera

Argazki zaharren erakusketa osatu dute eta udaletxean dago ikusgai, baserri tresna zaharrekina batera

Imanol Garcia Landa ikaztegieta

Arrakasta izaten ari da Ikaztegieta argazki zaharrekina egindako erakusketa. Amaia Ramiro Amundarain da antolakuntzan parte hartu duenetako bat, eta berak azaldu duenez, «helduek asko estimatu dute, eta hasiera batean zuen asmotik beste dimentsio bat hartu du». Izan ere, DBH 4. mailako ikasturte amaierako bidaientzako dirua lortzeko antolatutako festaren parte gisa hasi ziren argazki zaharrak biltzeko ideiarekin. «Festa horretara jendea erakartzeko modu bat zela pentsatu genuen», esan du Ramirok. «Hiru astetan egindako lana izan da, eta jendeak asko lagundu du, bai argazki erakusketa osatzeko argazkiak emanez eta baita bigarren eskuko azokarako ere produktua utziz». Baserriz baserri joan dira argazkiak eskatuz eta jendeak oso jarrera ona izan duela nabarmendu du.

Festa horretan jarri zen abian erakusketa, eta izandako arrakasta ikusirik, udaletxearen behe solairuko aretoan erakusketa jarzea erabaki zuten. «Jendeak, horrela, patxadan ikusteko aukera gehiago izan du», dio Ramirok. 16:00etatik 18:00etara dago zabalik, eta gaur izango da azken eguna ikusteko. Argazkiez gain, baserriko tresna zaharrak ere ikusgai daude. Herriko eskolak ere baliatu du erakusketa eta atzo izan ziren bisita egiten. Hain justu, eskolan herria gai gisa lantzen ari dira eta oso ondo egokitu zaie erakusketa hurrek lehengoko Ikaztegieta gehiago ezagutzeko.

Aurrera begira, jasotako argazkiak –erakusketan jarritakoak baino gehiago dituzte– DVD batean bilduko dituzte eta salgai jarriko dute zortzi eurotan. Izena emateko 659 408 520 zenbakira deitu behar da.



Herriko eskolakoek bisita egin zuten, atzo, argazki erakusketara; argazkiez gain, baserri tresna zaharrak ikusi daitezke udaletxearen behe solairuan. IGL



Ikaztegieta herria, trenbidetik ateratako argazkian, 1940an. Eskuineko irudian, Ikaztegieta sarreran (Alegia aldetik) dagoen zubia, 1944ean. HITZA



Ezkerreko irudian, zenbait herritar 1936ko gerraren ondoren errazioa banatzeko erabiltzen zen lokalaren aurrean, gero gazte lokala izan zena. Eskuineko irudiak, 1873ko martxoaren 12an, III. Karlistadan, trena bidetik aterarazi zuteneko pasadizoak erakusten du. HITZA

Mauka
GAURKO ESKAINTZA

Goi mailako sukaldaritza... 39€-an soilik!

LA CUCINA DE PLAGARO
Ponela leku. 17
GASTIZ 0106
MAUKA
Tel. 945 27 96 54

Presioa 39€

berria

www.mauka.eu

sariduna

bi pertsonentzako harri bolkanikodun masaje geotermala (30') + jacuzzi sesioa

Maria Luisa Alkorta Barrena (Getaria)
*HITZA jarriko da saridunarekin harremanetan

hitza harremanetarako: 902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

HYDRA
THE RELAX CENTER

Aurrekontuekin kritiko agertu da PSE-EEko Arija

Oposizioarekin «mespretxuz» jokatzeari leporatu dio udalari Maria Luisa Arija zinegotziak

A. Imaz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udala 2013ko aurrekontu parte hartzaileak prestatzen ari da. Helburu horrekin, herritarrei hainbat deialdi luzatu dizkie. Iragan astean, batzar ireki bat egin zuten eta azaroaren 30ean, galdeketa orri bat buzzoneatu zuten Amasa-Villabonako etxeetan. «Herritarren ekarpenak jaso nahi ditugu hurrengo urteko aurrekontuak osatzeko, batik bat, inbertsioen atalean», azaldu zuten udaletik, parte hartze prozesuaren zehaztapenak aurkezterako garaian.

Galdeketa eta ekarpen orria, herritarren artean zabaltzeaz gain, www.villabona.net webgunean zintzilikatu zuten udalak. Orri horiek udalari helarazteko, astelehenean hiru kutxa jarri zituen herrian. Azkenik, herritarrek dituzten zalantzak argitzeako, abenduaren 11n, 12an eta 13an, udal ordezkariak udaletxean egongo direla iragarri zuten. Hilaren 11n 10:00etatik 13:00etara, eta gainontzeko bi egunetan, 17:00etatik 20:00etara. Ekarpenak jasotzeko epea abenduaren 14ean amaituko dela azaldu zuten.

Behin prozesua amaitu ondoren, urtarrilean, agerraldi berri bat egingo du Amasa-Villabona-

ko Udalak, «aurrekontu parte hartzaileen ebaluazioa herritarrei gerturatzeko».

«Ongi, baina ez da nahikoa» PSE-EE alderdiak zinegotzi bakarra dauka Amasa-Villabonan, Maria Luisa Arija. Aurrekontuak osatzeko moduarekin kritiko agertu da Arija: «Alde batetik, alkatea bizilagunekin elkartu izana ongi iruditzen zaigu, baina bestetik, ez dela nahikoa uste dugu. Alkateari, aurrekontuen azalpenak udalbatzaren bilkuran ere eman behar dituela gogoratzten diogu».

Maria Luisa Arijaren esanetan, hitzaldiak «kontra programazioa argiak» izan dira, «Bildu bilkuren aurrean eztabaidatzen ez delako eroso sentitzen; debatai beldurra diotelako».

Arijak azaldu duenez, EAJk eta PSE-EEK 2012ko aurrekontuak nola joan diren azaltzeko eskatu zituen udalari, horretarako ez ohiko bilkura bat antolatzeke eskatuz. Guzti hau, Bilduk atzera bota zuten mozio batean eskatu zutela dio Arijak: «Ez da demokratikoa oposizioari aurrekontuen exekuzioaren inguruan ofizialki, argi eta garbi, azalpenik ez ematea; oposizioarekiko mespretxuz jokatzeko ari dira». Harrokeriaz politika egitea leporatu dio Bilduri Arijak, nahiz eta onartu duen, bizilaguneei udaletxeko atak zabaltzea oso garrantzitsua izan dela; «horrek, ordea, ez du kentzen oposizioarekiko errespetu instituzionala egon behar duenik».



Matia Fundazioaren Zizurkilgo Fraisoroko langileek, 'Bikain' ziurtagiria lortu dute. A. IMAZ

Fraisoroko eguneko zentroak eta gerontologiakoak, 'Bikain' ziurtagiria lortu dute

Gurutz Beraza koordinatzaileak, euskararekiko langileen konpromisoa eta lana azpimarratu ditu

Asier Imaz Zizurkil

Fraisoroko eguneko zentroko eta gerontologiako langileek ospakizun eguna zuten atzokoa. Matia Fundazioak kudeatzen ditu zentro horiek, eta euskararen arloan egindako lanagatik, *Bikain* ziurtagiria lortu berri dute. Saria ospatzeko, ekitaldi xume bat egin zuten Zizurkilgo egoitzan, atzo.

Euskararen *Bikain* kalitate ziurtagiria Eusko Jaurlaritzak banatzen du. Euskararen errekonozimendu hau, ziurtagiri ofizial, publiko eta doakoa da, eta euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen duten enpresa nahiz erakundeei ematen zaizkie. Ziurtagiriak hiru maila ditu: oinarrikoa, tartekoa edo zilarrezko, eta gorena edo urrezkoa. Fraisoroko Matia Fundazioak, zilarrezkoa lortu du.

Harrotasunez beterik

Ekitaldian, zentroetako langileekin batera, Fraisoroko eta Matia Fundazioako zuzendaritzen ordezkariak egon ziren. Gurutz Beraza Fraisoroko koordinatzaileak, lan-kide guztiei eskerrak eman nahi izan zizkien, lehenik eta behin.

Matia Fundazioak, Bai Euskarari akordioa duela 13 urte sinatu zuela gogoratu zuten Berazak. Hizkuntza politika baten beharra ikusi zuten une hartan, eta Berazak azaldu zuenez, helburuak zehazten hasi ziren, lau ardatz kontuan hartuta: «Egoiliarrek eta hauen senideek, bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera bermaturik izatea; irudi korporatiboa eta hizkuntza presentzia elebitan egotea; langileengan hizkuntza gaitasuna bultzatzea, eta lan harremanetan euskararen erabilera areagotzea».

«Fraisoroko langileok erantzun ederra eman diegu jarritako helburuei»

Fraisoron hartutako konpromisoek, bere fruituak eman dituzte. Gurutz Beraza harro sentitzen zen atzokoa: «Fraisoroko langileok, Matia Fundazioko zerbizuen laguntzarekin, erantzun ederra eman diegu jarritako helburuei. Fraisoroko arduradun bezala, nire harrotasuna aitortu behar dut honelako langile taldea izateagatik; zuen jarduera eta inplikazioa, ezinbestekoak izan dira ziurtagiria lortzeko bidean».

Euskararen bidean, Gurutz Berazaren ibilbide pertsonala eta profesionala loturik joan dira Fraisoron. Andoindarrak euskarara txikitatuz ezagutzen zuten,

baina galtzen joan zen. Zizurkilera lanera etorri zenean, inguru euskaldun batean aurkitu zen Beraza, eta euskarra berrikasteari ekin zion. Horrekin batera, hizkuntza politika baten beharra ikusi zuten Fraisoron, eta proposamena luzatzea erabaki zuten. Alde guztien onarpenak jaso ondoren, praktikan jartzeko unea iritsi zen. Atzo ospatu zuten saria, errekonozimendu zabalago baten isla ere bazen, beraz. Gurutz Beraza berak onartzen zuten bere harrotasuna mugagabea zela, «ezin duzu imajinatu nola sentitzen naizen», zioen. Lorpen handiak lortzen ari direla gaineratu zuten Berazak, eta horien artean, langileek lehen hitza euskaraz esatearena aipatu zuten: «Emanen ari garen urrats horiek ez dira azalekoak; hainbat langile jada euskaltegian dabilta euskara ikasten. Guztion erantzuna oso ona izaten ari da».

Ana Orbegozo Matia Fundazioaren zuzendaritzako kideak esker oneko hitzak izan zituen. Fraisoroko lantalde guztiaren lana azpimarratu nahi izan zuten, eta ez euskararen arloan bakarrik. Matia Fundazioa Zizurkilgo lantaldearekin oso gustura dagoela esan zuten Orbegozok, eta horrela jarraituz gero, edozein lorpen lortzeko gaitasuna dutela esan zion.

Hitzaldien ondoren, ekitaldian bildutako kide guztiek luntxa egin zuten, euskararen *Bikain* kalitate ziurtagiria ospatzeko.

Sartu gure webguneetan

tolosaldea.hitza.info
leitzaldea.hitza.info
villabona-aiztondo.hitza.info
alegialdea.hitza.info
tolosa.hitza.info
anoetaldea.hitza.info
libaraldea.hitza.info

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza orrialdeari eman "atsegin dut"

Jarraitu albisteak
Twitter bidez
@hitzatolosaldea

hitza info

Etzi jokatuko dituzte XXI. Berrobiko Frontenis Txapelketako finalak

Goizean hirugarren eta laugarren postuetarako partidak izango dira, eta arratsaldean finalak, 15:00etatik aurrera

Iñigo Terradillos Berrobi

Berrobiko XXI. Jon Ander Izagurre Frontenis Txapelketa azken txanpan sartu da. Aurtengo podiuma osatuko duten jokalarien izenak jakitea besterik ez da falta. Horretarako, etzi jokatuko dituzte finalak eta hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidak.

81 parte hartzaile izan ditu aurtengo txapelketak. Hauek guztiak lau modalitatetan banatuak, eta horietako bat izan da, hain zuzen, aurtengo berrikuntzetako bat. Estreinakoz bikote mistoak aritu dira elkarren aurka. Antolatzailleek nesken presentzia areagotu nahi izan dute horrela, eta gustura daude izan duen harrerarekin. Zortzi bikote mistok parte hartu dute, mutiletan 39 bikote aritu dira, eta 30 banakakoan, eta emakumezkoetan lau bikote.

Txapelketa «polita» izan dela aipatu dute antolatzailleek, eta «oso giro ona» nagusitu dela Be-



Gustura daude antolatzailleek aurtengo txapelketarekin. I.G.L.

robiko frontoian. Aurtengo faborito ziren izenen artean lesio dezentze izan direla azpimarratu dute, eta herriko gazteak indartsu datozela: «16 urteko jokalaria batek urtero goiko postuetan bukatzen duen jokalaria bat garaitu zuen».

Finalak eta jai giroa

Bada, etzi bukatuko da aurtengo frontenis txapelketa. Goizean hirugarren eta laugarren postuetarako partidak jokatuko dituzte, eta arratsaldean, 15:00etatik aurrera, finalak. Irabazleek garai-

kurra eta txapela jasoko dute, eta finaleldietara iritsi direnek afaria. Horretaz gain, etziko finalak ikustera joaten direnen artean Tolosako Aralar Kirolak dendan erabiltzeko 30 euroko 10 txartel zozketatuko dituzte.

Finalen ostean parte hartzaileak herriko elkarteetan bilduko dira afaltzeko. «Oso giro polita sortzen da, urtero txapelketa honetan topo egiten dugunon artean erlazio polita sortu baita», diote. Eguna biribiltzeko animatzen direnak Oriora joango dira hango jaietan parranda egitera.

Merkatu Solidarioa prestatzen ari da Ibarrik Misio Taldea

Abenduaren 16tik 23ra bitarte egingo dute Ibarriko plazan, eta herritarren laguntza eskatu dute

I. Terradillos Ibarra

Ibarrik Misio Taldeak, sasoi honetan urtero egiten duen moduan, Merkatu Solidarioa jarriko du aurten ere. Abenduaren 16tik 23ra bitarte izango da, Ibarriko plazan dauden parrokiaren lokalak, eta bertan saldatuko diren biltzen duten dirua, misio taldeak Indian, Ekuadorren eta Honduraren dituen proiektuetara bideratuko dute.

Merkatua jarri aurreko astean, hau da, abenduaren 10etik 15era,

materiala jaso eta guztia antolatzen egongo dira. Asteleheneetik ostiralera egingo dute hori, lokalean bertan, 17:00etatik 20:00etara.

Bada, beste urteetan egin duten moduan, herritarrei laguntza eskatu diete, bai merkatua antolatzeko, bai eta bertan salduko den materiala eramateko ere. Misio taldeak adierazi dutenez, materiala askotarikoa izan daiteke: arropa, liburuak, diskoak, apain-garriak,...

Pintxo pote solidarioa

Bestalde, aurtengo ekimena berrikuntzekin dator. Izan ere, Merkatu Solidarioa hasiko den egunean, hau da, abenduaren 16an pintxo pote solidarioa egingo dute. Goizean izango da, 10:00etatik 14:00etara.



Aurreko urteetan bezala, jende ugari espero dute aurten ere merkatuan. I.T.

→ Laburrak

'Blancanieves' filma, asteburuan, Leitzan

LEITZA ▶ *Blancanieves* filma izango da ikusgai asteburu honetan Leitzako zinemetan. Ohi bezala, ostiralean 22:30ean emango dute, eta igandean, berri, 19:30ean izango da ikus-teko aukera.

KZgunean ikastaroak etzi eta astelehenean

BERASTEGI ▶ Seme-alabak Interneten nola babestu, eta metaposta zer den ikasiko dute gaur, 09:00etatik 11:00etara eta 11:00etatik 13:00etara, KZgunean. Abenduaren 10ean ere seme-alabak babesteko moduari buruz ariko dira, eta Open Office writer aurreratua ere irakatsiko dute. Interesatuek ostirala izango dute izena emateko azken eguna.

Ezohiko batzarra, etzi, Leitzako udaletxean

LEITZA ▶ Ezohiko batzarra izango da etzi, Leitzako udaletxean, 13:30ean hasita. Etxe kaleratzeen egoera larriaren aurreko mozioa, azaroaren 25eko adierazpen instituzionala emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren harira, edota Leitzan eta Nafarroan frankismoaren ikurrak kentzeko puntuak eztabaidatuko dituzte, besteak beste.

Kirol jardueretarako diru laguntza eskatzeko epea

IBARRA ▶ Ibarriko Udalak deialdia egin die herriko kirol erakunde, talde eta norbanakoei, 2012 urtean garatu dituzten jarduerentzat diru laguntza jaso ahal izateko oinarriak kaleratu baititu. Bada, interesatuek udaltxera jo beharko dute oinarriak eta eskaera orriak eskatzera, eta zalantzaren bat izanez gero ere udaletxean argitu ahaliko dute.

Elkartasun Gaua izango da Elduainen, hilaren 15ean

ELDUAIN ▶ Elkartasun Gaua ospatuko dute Elduainen abenduaren 15ean, larunbatean. Hasteko Berastegi eta Berrobiren arteko kirol jolasak egingo dituzte 17:00etan. Ondoren, pintxo potea izango dute, eta *Barrura begiratze*ko leihoak dokumentala ikusteko aukera izango da. Jarraian elkartasun argazkia egingo dute, eta amaitzeko afaria.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN**

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	13°
HOTZENA	5°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Txuletaren Festa izango da abenduaren 6tik 9ra. Zerkausiko eta Euskal Herria plaza-ko otorduetarako txartelak Tolosaldea Tourren eskatu behar dira, 943 69 74 13 telefono zenbakira deituta, edo tour@tolosaldea.net helbide elektronikora idatzita.
- **Tolosa.** 1962 urtean jaiotakoek euren 50. urteurrena bazkari batekin ospatzea pentsatu dute. Abenduaren 15ean izango da, eta parte hartu nahi duenak tolosa1962@gmail.com helbidera idatzi beharko du. Zalantzarik izanez gero ere, helbide horretan egin daitezke galderak. Gaur izango da izen emateko azken eguna.
- **Berastegi.** Zure seme alabak babestu ikastaroa emango dute, 09:00etatik 11:00etara, eta 11:00etatik 13:00etara, metapostari buruzkoa, KZgunean.
- **Ibarra.** Kultur eta kirol jarduerengatik diru laguntzentzako epea zabalik dute norbanako, talde eta erakundeek. Informazioa eta eskaerak udaletxean.
- **Berastegi.** Babes zibileko taldearen bilera, 21:00etan.

ERAKUSKETAK

- **Ikaztegieta.** Argazki zaharren erakusketa udaletxean gaur izango da ikusgai, 16:00etatik 18:00etara.
- **Larraul.** Koldo Jauregiren aho soinu bilduma museo etnografikoan, urte bukaera arte.
- **Tolosa.** Mariona Masgrauren 110 lan biltzen dituen *Bidaia bat txotxongiloen mundura* erakusketa, Topicen.
- **Tolosa.** Inmakulada ikastetxeak eta Mugen Gaineretik-ek antolatuta, Guatemalako Ixil eskualdeko emakumeen inguruko erakusketa, Aranburun.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa: Bronte C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13
- Gauekoa: Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Leitza



GIRO POLITA HEGOAMERIKAR FESTAN

Harrera oso ona izan du Leitza Atekabeltz gaztetxean egin duten Hegoamerikar festak. Antolatzaileek esan dutenez, 70 lagun inguru elkartu ziren larunbatean, «oso giro onean».

Kuba, Ekuador, Peru eta Kolonbiako jakiak dastatu zituzten, eta dantza saioa ere egin zuten. Bertakoak eta hegoamerikarrak elkar ezagutzeko helburuz eginiko ekimena izan da. HITZA

Agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurrak



2 sarrera

**LAGUN ARO GBC
Herbalife Gran Canaria**
saskibaloia partida

Igandea - abenduak 9 - 18:00
Donostiko Irunbe

Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.

zozketa

hamar harpidedunentzat
launa sarrera

Abenduak 6tik 9ra II Circo Italianok,
emango dituen emanaldietarako



Tolosa & Co

Zozketan parte hartzeko deitu asteazkena 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.



sarrerak



Abenduak 6tik 9ra / Tolosako San Esteban auzoan
Emanaldiak: abenduak 6, 19:00etan
abenduak 7, 17:00etan eta 19:30ean
abenduak 8, 17:00etan eta 19:30ean
abenduak 9, 12:00etan eta 17:30ean
Sarreraren prezioa: 10 euro eta palkoa 15 euro